



1. Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.

2. Han emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.

3. Agiri hauek eraman:

- Nortasun agiriren fotokopia. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Epaitegian eskatzen da.
- Errolda agiria. Udaletxean eskatzen da, eta, adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- Familia liburuaren fotokopia. Ezkunduta bazaude edo seme-alabarik baduzu.
- Seme-alaben nortasun agiriren fotokopia. 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.

Guk abizena, zuk?

Euskal abizena modu ofizialean eta leku guztietan euskaraz idatzita izan nahi baduzu, hitu pausutan egin dezakezu, erraza da:

Oharra



ALDIZKARIAN PARTE HARTZEA

Norbaitek aldizkarirako proposamenen bat badu, artikuluren bat idatzi nahi badu edo argazki, bidai, ikastaro, afizio edo hobby-ren baten inguruko informazioa badu edo besterik gabe zerbait kontatu nahi badigu jarri dadila gurekin harremanetan. 943 881170 telefonoan edo itsasondo2.0@itsasondo.net helbidean aurkituko gaituzue.

Kultur Agenda

- **Ekainak 27**, jubilatuen txangoa, Loialara eta Gipuzkoar kostaldean zerhar.
- **Uztailak 4**: Olaberriko karretara irteera. Gaztedia
- **Uztailak 5, 6**, Garagardo Festa
- **Uztailak 10**: Sobron abentura parkera irteera. Gaztedia
- **Uztailak 17**: Afaria eta pelikula. Gaztedia
- **Abuztuak 14, 15**. Itsasondoko abuztuko jaiak
- **Irailak 13, 14 eta 15** Urkiko jaiak
- **Irailak 20, 21, 22**, Itsasondoko jaiak

Uztailean goizez irekita egongo da Gaztelekua. (10:00 -12:00etara)

- **Uztailak 5**: Pintxo hotzen lehiaketa
- **Uztailak 12**: Kartera tailerra
- **Uztailak 19**: Argazki erakusketa (azkeneko urteetako udalekuetan ateratako argazki erakusketa)

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170
 • **Gizarte Langilea**
 • **Udal Arkitektoa**
 • **Epaitegia**

Haurreskola 943 164831
Herri Eskola 943 887704
Arbel-Aitz Elkarte 943 881339
Lurdes Janari Denda 943 885236
Arrastoa Botika 943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012
Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555
Traste Zaharrak 943 161590
Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((21. zk)) Ekaina-Iraila 2013

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
 Alberto Ruiz
 Arantzazu Muñoa
 Aranzadi Elkarte
 Axier Arbilla
 Axier Bazaga
 Belen Mendizabal
 Beñi Agirre
 Danel Etxeberria
 Ekaitz Arruti
 Eskolako haurrak
 Erkuden Mendizabal
 Haizea Arruti
 Haurreskolako Hezitzaileak
 Iker Azurmendi
 Iker Mendizabal
 Iker Uson
 Iratxe Ibarra
 Itsasondoko Gazte Taldea
 Iturritxiki Guraso Elkarte
 Jose Luis Aranburu
 Kike Fernandez
 Maitte Lasa
 Maixabel Garmendia
 Mikel Mendizabal
 Rosi Noguera
 Unai Agirre
 Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN:
 SS-297-2010 2171-5572

GOGORARAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA IRAILEAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((21. zk)) Ekaina-Iraila 2013



Parte hartzea, lehen fasea amaituta

Jon Garmendia kirolerako griña barnean
 Garai bateko San Joanak
 Auzolana abian da berriz ere



Itsasondo 2.0 aldizkariak bere bilakaeran hainbat aldaketa izan ditu. Aurkeko alean berrikuntza nagusia formatu aldaketa izan zen, besteak beste kostuak murriztearen; oraingo honetan, *Zaharrak berri* atalean emandako aldaketa da nabarmentzekoa. Jakina da bai Itsasondok bai eta itsasondoarren bizimodu eta usadioak ere, aldaketa sakonak jasan dituztela denbora laburrean, eta gure helduak horren testigantza emateko gai diren bitartean, berauek jaso eta gainerako herritarrei ezagutaraztea interesgarria iruditu zaigu. Nondik gatozen jakitea ezinbestekoa baita, nora joan nahi dugun jakiteko.

Berrikuntza honetaz gain, edukiz gainezka dator 21. ale hau, beste behin ere hainbat herritar eta boluntarioen laguntzari esker. Eskolako haurrak zinema munduan murgildu dira; haurreskolakoei, berriz, ikasturteko balantzea egiteko unea iritsi zaie. Itsasondon jarritako hondakinen bilketa sistema berriaren lehenengo emaitzak ere eskuratu ditugu. Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, urtaro paregabea dugu mendi ibilaldiak egiteko: Mirandaolatik Barrendiolara doan ibilbidea proposatzen dizugu oraingoan. Eta horrez gain, parte-hartze prozesuaren lehen fasearen amaieraz eta auzolanaz ere mintzatuko gara.

Kultura alorrean ere hainbat ekintza egin dira: liburu azoka, Txikiaren heriotzaren 40. urteurren ekitaldi hunkigarria, patinen gaineko hockey-a, ijito dantza taldearen ikuskizuna, mami lehiaketa, Murumendira irteera kulturala eta III. Herri eguna eta beste hainbat ekintza. Nork dio Itsasondon ez dagoela zer eginik?

Hurrengo alea oporretatik bueltan izango dugu. San Juan sutara enbarazuan ditugun guztiak bota eta opor egun atsegin batzuen ostean ikasturte berriari gogotsu ekiteko itzuliko gara. Laster arte. ■



03. **Udaleko berriak**
 04-05. **Haurreskola:** Itsasondoko haurreskolak haurrak behar ditu irekita mantentzeko
 06-07. **Eskola:** Zinema eguna haur hezkuntzan
 08-11. **Elkarrizketa:** Jon Garmendia
 12-13. **Hondakinak**
 14. **Agenda 21:** Itsasondo ekinez egina 2012-2013
 15. **Ongizatea:** Familia bitartekaritazarako zerbitzua
 16. **Aranzadi:** Murumendira irteera
 17. **Oria ibaiaren garbiketa**
 18. **Kale inkesta:** Zer dakigu Itsasondoko parte-hartze prozesuaz?
 19. **Informatika:** Krisialdia mundu birtualean
 20-21. **Zaharrak berri:** Garai bateko San Juanak
 22-23. **Ibilaldia:** Mirandaola-Barrendiola-Mirandaola
 24. **Guraso elkarte eta Gazteria**
 25. **Itsasondoko gazte taldea**
 26. **Auzolana**
 27-29. **Hemeroteka**
 30. **Lorezaintza eta errezeta**
 31. **Liburuaren txokoa**
 32. **Oharrak. Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

DOINUA: *Aizak, bi mutil mainontzi*

*Eskolan opornaldia
 alaitu da ataria
 kontuak eta balorapenak
 osaturik ia,
 Mirandaolan sutegia
 Barrendiolan urtegia
 San Juan bezperan diz-diz suaren
 ingurumaria. (bis)*

*Eustakioren omena
 aspaldiko aitormena
 argazki zahar ta kopla berriz
 gaukotuz lebena,
 ta Murumendin barrenara
 euskal giza-aztarrena
 Mariren koban aurkitu degu
 probarik onena. (bis)*

*Gurasoak aztarrika
 patin gainean jarrita
 hondakinekin topo egitea
 ezin aldarrika,
 palaka edo barrika
 eskuetan erreminta
 auzolanean garbi dezagun
 plaza ta karrika. (bis)*

Udal erabakiak

Ekainaren 11n egindako udal batzarrean besteak beste honako erabakiak hartu dira:



Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Etxez etxeko laguntza zerbitzua prestatzeko azken bost urteetan Udalak Ilarki-ekin hitzartutako kontratua amaitu denez, Udalak beste kontratu bat gauzatzeko lehiaketa egin du. Espediente horri buruzko erabakia hartzeko ahalmena alkateari ematea erabaki da.

Etxebizitza sozialak

Udalak sustatutako eta 2006-2007. urteetan eraikitako etxebizitza sozialetako bat errentan ematea baimentzeko eskaria jaso da udaletxean. Gai horri buruz erabakia hartu aurretik, Udalak deialdia egitea erabaki du, aipatu etxebizitza erosteko inork interesa duen jakiteko. Interesatuak bere egunean etxebizitza soziala erosteko eskatzen ziren baldintzak bete beharko dituzte. Interesatuak eskaria udaletxean aurkeztu beharko dute, ekainaren 28a baino lehen.

Udaletxearen eraberritze obrak

2012an egin ziren udaletxearen eraberritze obrak amaitzeko, 1. solairuan eraiki behar den KULTUR GUNEaren obrak egingo dituen enpresa kontratatze lehiaketa egitea erabaki da. Obra honek 225.187,72 euroko aurrekontua izango du eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren diru-laguntza jasoko da berau finantziazteko.

Etxebizitza errentan

Nagusia 7. 2. solairuan Udalak zuen etxebizitza errentan emateko prozedura eskari bakar bat jaso denez, eta

honek bete beharreko baldintzak betetzen ez zituenez, lehiaketa hutsik geratu da beste behin ere.

2012ko kontu orokorrak

2012ko udal aurrekontuen likidazioari eta kontu orokorreari oniritzia eman zaie ekainaren 11n egindako batzarrean.

Kontuen laburpena honako hau izan da:

- Urtea superabitarekin amaitu da. 2013an erabilgarri izango den gertakina: 184.000 euro.
- Batzar berean 2013ko aurrekontuak aldatzeko 1. espediente onartu da, 59.900 euroko zenbatekoa duena. Espediente honen bidez, udal aurrekontuko zenbait partida aldatu dira, hasieran egindako prebisioa kubritu beharreko gastuak baino txikiagoa izan delako.

Mozioak

Udalak ekainaren 10ean egindako batzarrean Onkologikoak gipuzkoarrei ematen dien zerbitzuaren aldeko mozioa onartu da, erakundeei (Kutxa, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetza) eskatzeko Onkologikoa Osakidetza osasun sistemaren barne sartzearan aldeko erabakia hartzeko eta orain arte eman ohi den diru kopuru bera ematen jarraitzeko.

Tasa eta zergen kobrantza

2013ko ibilgaiuen gaineko zergaren kobrantza epea amaituta, emaitza hau izan da:

Errolda: 51.782,78
 Kobratutakoa: 46.043,69 (%88,92)
 Pendiente: 5.739,09

Bestalde, 2012an kobratzeko geratu diren zerga eta tasen datuak jakin ondoren, apremio bidez kobratzeko tramitea hasi dugu. Apremio bidez ordaintzeko emandako epean ordaintzen ez diren zorraren zenbatekoak eskuratzeko, bahitura prozedura jarraitzeko asmoa dago.

Frontoiko argi indar sistema

Frontoian orain arte argiak bizteko erabiltako sistemak, dirua erabiltzeak, arazoak sortzen zituenez, lapurretak gehienbat, sistema aldatzea erabaki zen. Sistema berriak ere zenbait arazo eman dituen arren, aurrerantzean, Kaxintane tabernan eskuragarri izango dituzte frontoiko argiak bizten duten fitxak. Fitxa bakoitza 2,5 euro ordaindu behar da.

Etxebizitza hutsak

Hutsik zeuden etxebizitzei Ondasun higiezinaren gaineko zergen %50eko erre-kargua aplikatzea erabaki zenez, dagoeneko aurten erre-kargu hori ordaindu beharko duten etxebizitzen zerrrenda onartu da. Errekargua aplikatzerakoan onartu ziren salbuespenak kontuan izanda, beste zenbait etxebizitza aurten erre-kargua ordaintzetik kanpo uztea ere erabaki da.

Diru-laguntzak

Aurreko urtean agindutako diru-laguntzak jasotzeko, agozkien justifikazioak bideratu dira Eusko Jaurlaritzara eta Aldundira.

Lortutako laguntzak:

- Goimen elkarteak 13.763,25 euroko (%45a) laguntza eman du landa lur-sailen mugarritze lanetarako.

Eskatutako laguntzak:

- Hondakinen prebentzioa eta berrera-bilpena sustatzeko.
- Haur eta gazteentzako jarduerak aurrera eramateko.
- Kultur ekitaldiak, jaialdiak antolatzeko.
- Itsasondo 2.0 aldizkaria egiteak sortzen dituen gastuak finantziazteko.
- Teknologia berriak atalean udal elkarteak sarearen bidez konektatzeko programarako.
- Azken hilabeteko euriteen ondorioz herri bideetan sortutako kalteak konpontzeko.
- Eusko Jaurlaritzari, euskarazko ekintzak egiteko.

Beste zenbait erabaki

Azken hiru hilabeteetan besteak beste honako erabakiak ere hartu dira:

- Obra txikiak egiteko jasotako baime-nak onartu dira. Guztira hiru izan dira.
- Herri baratza izeneko ordenantza onartu ondoren, herrian baratza edukitzeko interesaturik zeuden pertsonak aukeratzeko deialdia egin zen eta hiru eskari aurkeztu zituzten, Udalak pres-tatutako partzela kopuru bera. Eskatzaileei baratza bat lantzeko kontzesioa ematea erabaki da, bere egunean onartutako baldintzen arabera.
- Baimenik gabe egindako obregatik zehapen espediente bat tramitatu da.
- Hilerriko osario prefabrikatutako lurperaturik zeuden 17 hildakoen gorpuzki-nak atera ondoren, kontzesioa eskatu zutenei buruzko erabakiak eta likidazioak onartu dira. ■

Itsasondoko haurrenkolak haurrak behar ditu irekita mantentzeko

Kaixo lagunak!
Aurtengo kurtsoa bukatzeko geroz eta gutxiago geratzen den honetan, deialdi berezia egin nahi nuke hurrengo ikasturteari begira. Haurrenkolako matrikulak gainbehera handia izan du azken urtean eta datorren urteari begira ere larri-larri ibili gara haurrenkola irekita mantendu ahal izateko, baina lortu dugu! Haurrenkola zabalik izango dugu hurrengo kurtsoan ere! Horrek ez du esan nahi arriskutik kanpo gaudenik eta horregatik deialdi hau, guraso berriak haurrenkola ezagutzera etor daitezzen eta haurra haurrenkolan matrikulatu dezaten!
Horrez gain, urtero bezala haurrenkolan izan ditugun pasarte politenak erakutsi nahi dizkizuet. Momentu oso gozoak pasatu ditugu benetan, ikusi baino ez dago! Hiru haurrekin hasi genuen ikasturtea eta seirekin bukatuko dugu, eta horietatik hiru badoaz eskolara datorren urtean! Denbora azkar doa eta handitu zaizkigu jada! Horregatik, berrakada potolo bat eta hurrengo kurtsoa ere ongi hasi dadila!

Zenbat jolas egiten dugun haurrenkolan! Artista batzuk eginak gaude!



Ez dugu pinturarekin bakarrik margotzen! Hara, txokolatea da! Ea disimuluan probatzen dudana, ummmm!

Baina lan pixkat ere egin dugu, asko gustatzen zaigu ipuinak begiratzeko!



Gehien gustatzen zaiguna, hala ere, dantza egitea da! Jarri musika! Xala la riki riki!



Aurten eguraldi kaxkarra egin digu eta haurrenkola hondartza bihurtu dugu!

Hala ere, parkera ateratzeko aukera izan dugu, eskerrak!



Gu ere hasi gara haurrenkolara etortzen, eta txikiak izan arren, pixkanaka asko ikasten dugu!



Laster oporrak dira! Dena txukundu eta goazen kalera! Agur!!



943 16 48 31

Zinema eguna haur hezkuntzan

Itsasondoko Herri Eskolako Haur Hezkuntzako haurrak, Maiatzaren 3an zinema emanaldi bat prestatu genuen. A ze nolako lana!

Kartelen prestaketa

ZORRIKOPILU/BAI ARIDIRA
2 urtekoak apaintzen ari dira



ISKIAK PEGATZEN ARI GARA
Hizkiak pegatzen ari gara



IZENBURUAREN HIZKIAK MARGOTZEN ARI DIRA
Izenburuaren hizkiak margotzen ari dira



FILMEAI KUIU/IV ARIGARA
Filmea ikusten ari gara



SINOPSIA IZATEAN
Sinopsia egiten ari gara



Kartela ipini genuen eta argazkia atera

Sarrerak idatzi
HATELAEITEN VARI GARA
Sarrerak prestatzen ari dira



ZARE RAE GITI ET VARDI RA
2 urtekoak sarrerak egiten ari dira



Aulkiak zenbatu

Zenbakiak aulkietan ipintzen ari gara



Zenbakiak ordenagailuan idazten ari gara



Zinema eguna

Sarrerak erosten ari gara





Jon Garmendia

**Aurten 20. aldiz
"Quebrantahuesos"
txirrindu lasterketan parte
hartuko duen itsasondoarra**

Elkarrizketa honetan, Jonek bere kirol ibilbidea kontatzeaz gain, hain famatua egin den "Quebrantahuesos" txirrindulari lasterketaren ingurukoak ere azaltzen dizkigu, makina bat gertaera eta kuriositaterekin.

Beno Jon, hire ibilbidearekin hasi aurretik, kontatuiezaguk nor haizen...

Hermentariko semea naiz, lau anaietan gazteena. Nahiko gazterik eskolara Ordiziako Urdanetara joan nintzen eta han herritik atera eta lagun berriak egin nituen eta beste mundu bat ireki zitzaidan, eta gaztetatik kirol ezberdinak probatzeko aukera izan nuen.

Zein kirol huen gustuko txikitzen?

Hasiera haietan futbola nuen gustuko eta 11-12 urterekin futbolekin hasi nintzen. Garai hartan, Legorretakoekin futbol taldea osatzen genuen (tartean Mikel Lasa Real Madrid, Athletic eta Realean jokatuakoa); talde hartan Itsasondok jende dezente zegoen: Ibon Olazabal, Jon Etxeberria, Sabino Garmendia, Mikel Iturrioz... Oroitzen dut garai haietan Itsasondok ere izan zuela futbol taldea, "Itsaso" izenekoa, eta Tomaseneko Jesusen entrenatzen gintuen.

Eta futbolekin noiz arte?

13-14 urte bete arte. Ondoren, txirrindularitzara pasatu nintzen, jubenil mailara.

Zergatik?

Anaia, Aitor, hiru urte zaharragoa da, eta ordurako asko ibiltzen zen eta hura ikusita, zaletasun handia sortu zitzaidan. Aipatzekoa da, anaiaz gain, Jokin Mujika ere asko jarraitzen genuela, eta txirrindularitzarako zaletasuna betidanik izan genuen familian eta herrian.

Non hasi huen txirrindularitza ibilbidea?

Caja Ruralen hasi nintzen, baina denboraldia hasi behar nuen momentuan, apendizitisa harrapatu eta ebakuntza egin behar izan zidaten eta denboraldiko lehen lau hilabeteak galdu nituen eta gainerako denboraldia ere nahiko xelebrea izan zen. Jubeniletan derrigortuta zaude zure inguruko txirrindulari eskolara joatea eta ni Ordiziakoan hasi nintzen. Jubenil lasterketak Gipuzkoan egiten ziren.

Bigarren urtea?

Jubeniletako bigarren urtean talde berean aritu nintzen eta nahiko ondo ibili nintzen. Gainera, mailarik politena da. Txirrindulari guztiok edade beretsukoak ginen eta gure artean ez zegoen diferentzia handirik; horrela, aukera gehiago daude zerbait egiteko. Adibidez, afizionatu mailan zu baino sei urte zaharragoko jendea topatzen duzu eta diferentzia handia da.

Jubeniletan nahiko maila polita nuen, normalean lehenengo bost postuetan ibiltzen nintzen, eta lasterketa bat ere irabazi nuen. Gainera, kasualitatea izan zen, nik lasterketa Mendaron irabazi eta handik urte batzuetara Aitor anaia, Euskal Bizikletako etapa, leku berean irabaztea, lasterketa amaiera berdinarekin. Mendarako historialean, han egongo gara bi anaio.

Afizionatu mailarako igotzea?

Garai hartan, taldeak zure bila etortzen ziren eta txirrindulari batzuei dirua eskaintzen zieten horretarako. Gaur egun, afizionatueta 1. eta 2. urteetan, zure zonako txirrindulari eskola edo taldea mantendu behar duzu, baina garai hartan ez. Kategoria honetan, txirrindua eta materiala taldeak ipintzen zizkigun eta lasterketan postu on bat egiteagatik dirua eman ere bai (jubeniletan ez).

Afizionatueta lehenengo urtea Fagor taldean egin nuen. Denak jubeniletatik igotakoak ginen eta maila polita zeukan taldeak, baina hemen ere beste leku askotan gertatzen den bezala, dirua tarteko dagoenean dena izorratzen da. Lehenengo urtean maila txukuna eman nuen, nahiko postu onak eginda.

Afizionatueta bigarren urtea?

Iberdueron (orain Iberdrola dena) hasi nintzen. Urte hartan oso ondo hasi nintzen, baina ondoren anemiarekin hasi eta pisu asko galdu nuen eta ez nuen indarrik. Medikuen aldetik ez zegoen kontrol handirik, eta zure kontura ibiltzen zinen. Iberduero txirrindulari proiektua guk hasi genuen eta geroztik txirrindulari famatu asko pasatu ziren, esaterako Alberto Contador, Purito, Jon Odriozola...

Txirrindulariek ikasketak uztartzen dituzte?

Afizionatueta, txirrindulari askok ikasketak utzi egiten zituzten, gehienbat Kaiku edo Banesto bezalako taldeek fitxatzen bazituzten.

Nire kasuan, afizionatueta 3. urtean ikasketak bukatuak neuzkan. Txirrindularitzari dedikazio osoa eskaini nion eta askogatik txirrindularitzako urterik txarrak izan zen. Horregatik pentsatzen dut, hobe dela okupazio bat izan eta entrenatzeko denbora, eta ez entrenatu eta gero etxean egon buruari bueltaka. Urte hartan oso gaizki pasatu nuen.

Beraz, txirrindularitzaren alde apustu egin huen?

Bai, baina gaizki atera zitzaidan. Afizionatueta 2. urte amaieran, kalderero



Hobe da okupazio bat izan eta entrenatzeko denbora, eta ez entrenatu eta gero etxean egon buruari bueltaka

Ondo zabiltzanean, denek laguntza daukazu, baina gaizki zabiltzanean, laguntza gutxi daukazu

Orain 12.000 txirrindulari irteten dira eta lehiaketa hutsa da, lasterketaren filosofia erabat aldatu da

Zikloturistek 8.000€tik 12.000€era arteko bizikletak ibiltzen ditugu

ikasketak bukatu Goierri eta CAFetik deitu zidaten, eta hiru hilabetez lanean aritu nintzen. Ondoren, txirrindularitzarako apustua egin nuen, lana utzi eta dedikazio osoa ematea erabaki nuen. Afizionatueta 3. urteko denboraldia hasi aurretik, neguko prestaketan, entrenamendu oso gogorak egiten genituen eta nik porru eginda bukatzen nuen. Oroitzen dut gehiegi "matxakatu" nuela eta urte guztia ezin errekuaturik pasatu nuela. Alergiarekin ere oso gaizki ibili nintzen.

Denboraldi amaieran, gorputzari buelta ematen hasi nintzen eta iraileko bi lasterketetan postu onak egin nituen, baina denboraldia bukatua zegoen.

Anaiak gomendiorik ematen zian?

Bai eta dezente, baina alferrik zen. Berekin ere asko entrenatzen nuen. Anaia profesionaletar afizionatueta 3. urte egin ondoren igo zen. Urte haietan txirrindulari asko igotzen ziren; Euskadi fundazioa ere orduan atera zen.

Nik etxean konparazio ona neukan, bata lasterketak irabazten eta ni burua altxatu ezinik.

Taldeko laguntza psikologikoa?

Talde bezala ez genuen laguntzarik; beharbada, lasterketa pare bat korritzeari utzi, deskonektatu eta listo. Baina, txi-

rindulari mundu hau nahiko xelebrea da: ondo zabiltzanean, denen laguntza daukazu, baina gaizki zabiltzanean, laguntza gutxi daukazu eta zure kontura ikasi behar duzu aurrera egiten. Gainera, anaiak kontatuta, profesioaletan ere gauza bera gertatzen da.

Eta, prestaketa aldetik?

Gu afizionatuetan Ordiziako "Txiki" Arruaetarekin ibiltzen ginen. Hogeit hamar txirrindulari eta neguko prestaketa nola egin azaltzen zigun. Bera atletismoan ere ibiltzen zen. Ondoren, denboraldian zehar, hamabost eguneko entrenamenduak ipintzen zizkigun.

Nolakoa zen prestaketa hori?

Astelehen eta asteartetan entrenamendu lasaiak egiten genituen, asteazken eta ostegunetan entrenamendu gogorak, serie eta fondoko saioekin; ondoren, ostiral eta larunbatetan, lasterketa aurretik deskantsua.

Entrenamendu logikoena hau eta ez guk zikloturistetan egiten duguna, urteko egun guztietan entrenamendu gogorak eta deskantsu gutxi. Hala ere, nire kasuan, saiatsen naiz afizionatuetako prestaketa hura eramaten.

Janari aldetik?

Bakoitzak bere kontura, orain dezente kontrolatzen dute. Nire kasuan amarekin eztabaidatzen nuen zer jan, askotan garbantzuak ipintzen zizkidan entrenamendu gogorra neukanean, "indarra behar duzu" esanez, baina beno, beti iristen ginen adostasun batera.

Afizionatuetako 3. urtea amaitu ondoren?

Denboraldi amaieran, txirrindularitza taldea utzi eta Merkaldetik deitu zidaten lanerako eta bizikleta ere alde batera utzi nuen. Hamar ordu lan egiten nituen egunero, 80 kg-tara iritsi nintzen, ez nuen inolako kirolik egiten. Horrela igaro nituen lehenengo bi hilabeteak. Gorputza edozer gauzatarer egokitzen da, baina horrela ezin zela jarraitu pentsatu eta bizikleta berria erosi nuen, nire kontura hasteko. Ez dakit deskantsua ondo etorri zitzaidan, baina benetan ondo ibiltzen hasi nintzen.

Merkalden sei hilabete igaro eta CAFetik deitu zidaten. Gaur egun, bertan egiten dut lan.

Afizionatuetara itzultzeko tentaziorik?

Bai, eta asko. Pena ematen zidan horrela

uztea. Gainera, ni baino gutxiago ibiltzen ziren txirrindulari asko lasterketetan aurrean ikusten nituen.

Hire kontura "a tope"?

Quebrantahuesos lehenengoz urte hartan egin nuen, baina oso ezberdina zen. Pentsa, 400 txirrindulari atera ginen edizio hartan, ibilbide berdina zen (Hoz de Jaca gabe), 200 km eta aldapa ikaragarriak, anoa postu guztietan geratzen ginen, umore onarekin. Helburua ibilbidea bukatzea zen, eta ez zein postutan iristen zinen. Asteburu ederra pasatzen genuen.

Eta orain?

Pixkanaka dena aldatu da. Orain 12.000 txirrindulari irteten dira eta lehiaketa hutsa da, lasterketaren filosofia erabat aldatu da. Azken urte hauetan negozio huts bihurtu da. Lehen, izenemateak 30-36€ balio zuen, eta orain 60€. Horrez gain, hotela, apartamendua, janaria, gasolina... ordaindu behar dituzu asteburua pasatzeko. Datorren urterako enpresa batek hartu duela esaten da, eta azken urte hauetan dortsala zozkatatu bada, enpresa honek parte hartu nahi duten guztiei dortsala salduko die; beraz, dirua eta dirua nahi dute.

Adibidez, Holandan munduko kopako lasterketen ibilbidea daukaten zikloturista lasterketak daude, 25.000 txirrindulariarekin, baina denak lasai-lasai eta lehiatu gabe.

Aurten zenbatgarren aldia duk?

Aurten 20. aldiz egingo dut Quebrantahuesos, eta gainera, urte gehienetan postu onak eginez. Hiru ediziotan lehenengo hamarretan geratu naiz. Hala ere, urte batzuetan zorte txarra izan nuen; adibidez, 2002an ibilbidea aldatu zuten eta oso aurrean nindoan, baina azken kilometroetan zulatua izan nuen.

Quebrantaz gain, beste lasterketarik?

Quebranta ez da lasterketarik politena, fama gehien hartu duena da eta jendea horregatik joaten da. Lasterketa politagoak dira Larraulgoa, Isabakoa, Irati Xtrem... Ibilbideaz gain, paisaia ikusgarriak daude. Gipuzkoan ere badaude lasterketa politak: Zarauzkoa, Donostiakoa, Villabonakoa, Hondarribikoa...

Zikloturistetan kategoriak daude?

Bai, 30 urte azpitik Ziklodeportista, 30-40 tartean Master 30, ondoren Master

40, 50 eta 60. Nik 42 urte dauzkot, beraz, Master 40an ibiltzen naiz.

Lasterketek egutegi bat daukate, adibidez, Nafarroako kopa 10 lasterkek osatzen dute eta edozeinek parte hartu lezake. Gaur egun, afizionatu mailako lasterketak osatzeko arazoak daukate; askotan 50-60 txirrindulari elkartzen dira. Master lasterketa hauetan 200 txirrindulari elkartzen gara eta muga jarrita dagoelako, bestela gehiago. Ez dago dirurik edo trofeorik, jendeak lehiatu nahi duelako parte hartzen du, besterik gabe.

Urtean zenbat lasterketa?

Hamabi bat lasterketa egiten ditut, 10.000 km-ko entrenamenduarekin. Lehen urte osoan 20.000 km egiten nituen. Gainera, Txindokipe taldea osatu dugu hogeit hamar txirrindulariarekin. Denok gara Goierri eta Tolosaldekoak eta Master mailako lasterketetan ibiltzen gara.

Korrika ere aritzen haiz?

Urte erdia txirrinduan eta beste erdia korrika. Horrela, etxean denbora gehiago egoten naiz. Gainera, korrika ententzeak denbora gutxiago suposatzen du, eta lanarekin ere hobeto uztartzen dut.

Donostiako Maratoia lau-bost aldiz egina daukat, 2 ordu eta 40 minutuko denborarekin. Behobia-Donostia zortzi bat aldiz.

Arriarango Mendi Duatloiko apustua?

Gorka Telleriarekin apustu egin genian Mikel Gaztañagarekin eta biok. Berak esan zigun, ez dago potrorik egiteko eta Mikelek baietz lehenengo hamarretan. Gorkak abantaila eman zigun biotako edozein lehenengo hamabostetan ezetz iritsi. Prestatu ginen eta nik 15. eta Mikelek 16. bukatu genuen; beraz, apustua irabazi genuen. Esperientzia polita baina gogorra izan zen.

Duatloietan parte hartzeko asmorik?

Ez dut ezezikorik esaten, baina errepideko duatloietan, mendikoak arriskuetsuak iruditzen baitzaizkit. Agian etorkizunari begira aukera bat izan daiteke.

Gaiz aldatuz, zer iritzi daukate dopinari buruz?

Garai batean dezente egongo zen, baina orain dena oso kontrolatua dago. Niri pena ematen dit, txirrindulari batzuek



3 galdera motz

denei fama bera jartzea. Orain txirrindulari gehienak garbi doaz; gainera, urtean zehar kontrol pila bat pasatzen dituzte eta beste kiroletan oso gutxi. Badirudi dirua mugitzen duten kirolak ezin direla ukitu.

Txirrindulari profesionalak mediku bat daukate atzean eta beraien osasuna zainduta dago. Urte guztian zehar, edozein momentu eta lekutan egiten dizkiete kontrolak eta askotan beraien intimitatea zalantzan jarriaz. Beste kiroletan ez da horrelakorik gertatzen.

Baina, niri kezka handiena afizionatu eta zikloturista mailek ematen didate, ez baitago hainbesteko kontrolrik. Master lasterketetan kontrolak daude.

Soluzioa?

Oso zaila da. Txirrindulariak oso gutxi laguntzen dute elkar, bakoitzak berea egiten du. 1998ko Tourrean plantoia egin zen, baina ez zen adostasunik lortu. Agintzen daudenek ere zerikusi handia daukate.

Inoiz izandako pasarte edo kuriositatearik?

Uztaileko ostiral batean lau lagun bizikletan entrenatzen ari ginela batek esan zuen "igandean La Marmotte lasterketa

zegok" (Alpeetako lasterketa eta Alped'Huez, Glandon, Telegraphe, Galibier... igotzen dira), beste batek "bihar goizean atera ezkerro seieta, eguerdirako iritsi, izena eman..." Hasieran denok brometan hartu genuen, baina di-da batek makarroiak, besteak albondigak, besteak tortilla eta sagardoa eta han joan ginen Alpeetara. Lasterketa korritu, gainera nik bizikleta apurtu nuen Galibierren eta lau ordu egin nituen eguzkitan, kangrejuak bezala ipini nintzen, helmugara iritsi, bueltatu astelehenean goizeko 06:30ean, dutxatu eta lanera.

Beste batean, larunbat batean, urrutira joateko gogo gehiegirik gabe, 15 garbantzurekin atera nintzen etxetik eta 15 aldiz igo eta jaitsi nituen Lizarraustiko aldapak. Igoaldi bakoitzeko garbantzu bat botatzen nuen kontuak ondo eramateko.

Nolako bizikletak ibiltzen dituzue?

Profesionalenak baino hobeak, zikloturistek 8.000€tik 12.000€ra arteko bizikletak ibiltzen ditugu. Jendeak bizikleta bi urte-tik behin aldatzen du eta askotan kapritxo hutsa da, bizikleta bati mantentze ona eginez gero urte asko iraun baitezake. Bizikletako materiala, arropa... ere oso garestia da, baina mendietako portuak jaisteko bularrean egunkaria jartzen da.

Zer duzu gustuko Itsasondon?

Herri honetan dagoen lasaitasuna, beste herrietan ez dagoena.

Zer nabari duzu faltan Itsasondon?

Autoa aparkatzeko erraztasunak. Ni bizi naizen Beheko kalean autoak gaizki aparkatuta egoten dira, eta askotan auzotik ateratzeko arazoak daukagu.

Inoiz izan duzun amets bat?

Bere garaian, txirrindulari profesionala izatea; eta orain, gauzak ondo joanez gero, erretiro on bat edukitzea.

Bestelako afiziorik?

Batez ere, ehiza. Baina, teknologia berriek izorratu dute. Lehen egun osoa pasatzen genuen usoaren zain, baina orain hainbeste informazio dagoenez, grazia guztia galdu du.

Realzalea ere banaiz, bazkide eta afizionista, eta autoak ere oso gustuko ditut. ■

Atez ateko bilketa martxa onean

Martxoaren 21ean Itsasondon atez ateko bilketa sistema martxan jarri zenetik % 88 gaika biltzea lortu da, eta emaitzak etengabe ari dira hobetzen.

Hiru hilabete igaro dira dagoeneko atez ateko hondakin gaikako bilketa martxan jarri zenetik eta jakin ditugu dagoeneko lehen emaitza fidagarriak: atez ateko hondakin bilketa sistema berriarekin % 88ko birziklatze tasa lortu da. Datuok etxeko erabiltzaileak soilik kontuan izanda lortu dira, eta Sasieta Mankomunitateak nahiz Itsasondoko Udalak oso arrakastatsutzat jo ditu.

Bilketa sistema berria martxan jarri zenetik, Sasieta Mankomunitateko biltzaileek egunero pisatzen dute egun horretan jasotako gaia (astelehenetan, ostegunetan eta larunbatetan organikoa, astearteetan eta ostiraletan ontzi arinak, asteazkenetan papera nahiz kartoia, eta igandee-tan birzikla ezin daitekeen errefusa). Hala, egunean zenbat kilo jasotzen diren eta kopuru horretatik zenbat doan birziklatzera kalkula daiteke.

Axier Garro Itsasondoko alkatearen esanetan, hondakinak ahalik eta egokien kudeatzeko azken urteetan Itsasondon egiten ari garen ahalegina emaitza oparoak ari da izaten: "Sortzen dugun hondakin kantitate izugarriari irtenbidea emateko lanean dihardugu azken urteetan, eredu jasangarriago baten alde egin nahian, eta gure ahaleginak eman ditu lehen fruituak. Benetan emaitza onak dira, eta oso pozik gaude herritarrei esker Itsasondo iraunkorrako bateranzko bidean jarri garelako".

Sasieta Mankomunitatean Itsasondo izan zen lehena kaleko edukiontzi marroia jartzen, eta 2011ko uztailetik aurrera, zabor edukiontzia kendu eta, hein batean, bilketa pertsonalizatu zen. Hala, herri kaskoan hondakin % 80tik gora birziklatzea lortu zen: emaitza onak lortzen ginituen eta horretan jarraitzen dugu. Alkatearen iritziz, hala ere, gauza batean aurrerapauso nabarmena eman da atez ateko bilketa sistemarekin: "Hain zuzen ere, atez ateko sistemarekin jende berria erakarri dugu, eta lehen hondakinak gaika biltzen parte hartzen ez zuten familia asko gehitu dira sistemara".



Gaiez gai, hauexek dira birziklatze tasak:

Beira:	% 24,5
Papera eta kartoia:	% 12,1
Ontzi arinak:	% 12,3
Materia organikoa:	% 35,0
Birziklatu ezin den errefusa:	% 11,6
Arropa zaharrak:	% 3,50
Pilak:	% 00,1
Olio:	% 00,9



Edozein elektragailu txiki, jostailu edo txatarra botatzeko baldin badezute, goizetan Udaletxe aurrean dauden ontziak erabili dezakezue.



Orain, hondakinak ondo sailkatzeko aukera daukagu, herrian zehar jarri diren "zakarrontzi" berrietan.

Auzo-konposta "Bada gauzak egiteko beste modu bat"

Udalak, Agenda 21 bidez, prozesu parte-hartzaileak bultzatzen ditu. Prozesu hauetan ekarpen andana jasotzen da. Asko herriko hirigintza ekarpenak izan dira, eta proposamen bat auzo-konposta ezartzearena izan da.

Foru Aldundiak auzo-konposta bezalako ekimenak diruz laguntzen dituela baliatuz, Gipuzkoako hainbat herritan nola egin zen aztertu eta diruz laguntza auzo-konposta gunean teiltatua jartzeko aprobetxatu zen; horrela, erabiltzaileak eurtik babesten ditu.

Behin auzo-konpostagailuei teiltatua eraikita, Sasieta-rekin elkarlanean, herritarrek auzo-konpostan parte hartzeko lanketa egin da. Eskatzen den betebeharrak, bi orduko ikastaro batean parte hartzea da.

Auzo-konposta guneak jartzeko lekuak, hasieratik izena emana zuten herritarrek erabaki ziren, eta herritar hauek lagundu zuten konpostagailuak ezarri eta bidexka egiten. Lerro hauen bidez, beraien laguntza eskertu nahi dugu.

Materia organikoa guk geuk birziklatuz, batetik hondakin kudeaketa gutxitzen dugu, materia hau hondakin trafikotik atereaz, eta bestetik, gure baratzetan eta landareekin erabiltzeko kalitatezko konposta eskuratzen dugu.

Une honetan hainbat herritar dago auzo-konpostara atxikitzeko itxaron zerrنداتan. Uztailean beste ikastaro bat egitea aurreikusten da. Auzo-konpostan parte hartzea gustatuko balitzaizu, edota beste guneren batean auzo-konposta jartzeko interesa baduzu, jar zaitez harremanetan Udalarekin, aukera ezberdinak aztertzeko prest gaude. Animatu zaitez eta eman izena ikastaroan.

Auzokonposta edo konposta etxean egin nahi badezu, apunta zaitez:

Uztailak 3, 19:00etan Ludotekan, konposta nola egiten den ikastaroa izen ematea: Itsasondoko Udaletxean, 943 881170
Sasieta mankomunitatean 943 161555
Anima zaitez!

Auzo-konpostagailuaren montaita prozesua nola egin zen pausoz-pauso ikus daiteke.





Itsasondo ekinez egina 2012-2013

2012an Itsasondoko Udalak parte-hartze prozesu berri bati ekin zion: ITSASONDO EKINEZ EGINA. Prozesu honen helburu nagusiak bi izan dira: batetik, datozen urteetarako herri-plana osatzea, eta bestetik, Itsasondon herritarren parte-hartzea indartu eta bultzatzea.

Itsasondo ekinez eginak aurrekariak 2004-2005. urteetan garatu zen Agenda 21ean ditu: orduan ere, herritarrekin egin ziren hainbat batzarretan, zetozen urteetan aurrera eraman beharreko ekintzak eztabaidatu eta adostu ziren, Agenda 21eko Ekintza Plana osatuz. Udalak, plan hau oinarri hartuta, bertan jasotako ekintzak aurrera eraman izan ditu urte hauetan guztietan, eta iaz, plan berri baten beharra ikusi zuen.

Bestetik, Itsasondon herria PIZTU behar dela ere atzeman da. Herri izaera landu, herri kohesioa indartu eta herri bizi baten beharra daukagula ikusi da. Eta, horretarako, ezinbestekoa da guztion parte-hartzea.

Horrela, herritarren parte-hartzean oinarritutako Herri Plan berria landu dugu azken hilabete hauetan.

Zein fase izan ditu prozesuak?

Laburbilduz, hona hemen prozesuaren faseak. Proiektua honako fase hauetan banatuko da:

- 1. Prestaketa:** prozesua martxan jartzeko egin beharreko lanak zehaztu genituen fase honetan. Talde Eragileak lan egin zuen batez ere fase honetan.
- 2. Diagnostikoa osatzea:** sintesi diagnostikoa osatuko da, informazioa bildu eta interpretatuz. Diagnostikoa egiteko, herritarrei eginiko elkarrizketak erabili genituen.
- 3. Herritarrekin bilerak:** hiru lan-taldetan banatuta (Ingurumena eta Hirigintza, Herri Bizitza eta Ongizatea) herriaren inguruko hausnarketa egin zen, herriko hutsuneak aztertuz eta datozen urteetara begira garatu daitezkeen ekintzak proposatu eta lehentasunak markatuz. Lan-talde bakoitza bi herritarrek dinamizatu zuten.
- 4. Udal barruko lanak:** herritarrekin eginiko bileretan jasotako ekarpenen bideragarritasuna aztertu zen udal teknika-riekin. Herritarren ekarpenak landu eta ordenatu ziren.
- 5. Parte-hartze metodologia zehaztea eta balorazioa:** Itsasondoko Udalean, bere funtzionamendurako herritarren parte-hartzea nolakoa izan daitezkeen landu zen fase honetan.
- 6. Bukaera:** prozesuaren emaitzak azaldu, prozesua baloratu eta egindako lana ospatu da fase honetan.

Nola egin da?

Prozesu guztian zehar herritarren parte-hartzea bultzatu da, eta horretarako talde ezberdinak osatu ditugu:

- 1. Talde Eragilea:** udal ordezkari, herritar, komunikazio taldeko arduradun eta aholkularitza lan-taldeak osatutako taldea. Talde honek eraman du prozesu honetako gidaritza, bertan hartu ditugu prozesuaren inguruko erabakiak, eta bertatik egin diogu jarraipen zehatza prozesuari. Prozesu osoan zehar 10 aldiz elkartu da Talde Eragilea.
- 2. Komunikazio-taldea:** komunikazioko udal arduradun eta herritarrez osatua. Talde honetan diseinatu eta garatu da Itsasondo ekinez egina-ko komunikazio plana.
- 3. Herri Batzarra:** herritarren batzarra. Prozesuan zehar hiru bider elkartu da Herri Batzarra. Bertan, emandako urratsen berri eman izan da.
- 4. Lan-taldeak:** herritarrez osatutako hiru lan-talde sortu dira (Herri Bizitza, Ongizatea eta Lurralde Antolamendua). Lan-taldeak izan dira lanerako guneak; bertan, gai ezberdinen inguruko diagnostika egin, helburuak planteatu eta ekintzak proposatu eta adostu dira. Lan-talde bakoitza hiru aldiz elkartu da.

Eta hemendik aurrera, zer?

Hemendik aurrera Itsasondoko Udalarentzat bere kudeaketan herritarren parte-hartzea txertatzea izango da erronka. Horretarako, eta 2013ra begira, eredu eta egutegi jakin batekin egingo dugu aproba; ongi funtzionatzen badu, aurrera begira ere jarraitzeko asmoarekin.

Hiru lan-taldeek martxan jarraituko dute, eta lan-talde bakoitzean Udaleko langile batek ere hartuko du parte. Hilero elkartuko dira lan-taldeak.

Lan-taldeetan udal funtzionamenduan egunerokotasunean sor daitezkeen gaiak lantzeaz gain, aurrekontuak prestatzea begira, planean jasota dauden ekintzak lehenetsi eta landuz joango dira. Horrela, urri-azarorako talde bakoitzetik datorren urtera begira proposatzen diren ekintzak aurkeztuko dira, ondoren Udalak onar ditzan. ■

Bizitzan zehar denok izan dugu gatazkaren bat, azken finean gatazka gure bizitzaren zati bat delako. Gatazkak ekiditeko teknikak eta aholkuak daude eta arlo honetan prebentzioa ere ezinbesteko izaten da. Hala ere, egoera batzuetan ezinezkoa izan da ekiditea eta gatazka sortu da: bikotean, lagunen artean, bizilagunen artean, langile eta enpresarien artean, giza arlo guztietan. Familian ere gatazkak ditugu, eta nahiz eta berezko maitasuna egon senideen artean, denok erraz onartu dezakegu, askotan, hamaika korapilo izaten direla senideen arteko harremanetan, eta hauetatik batzuetan gatazkak sortzen direla.

Zer da?

Eusko Jaurlaritzako gizarte gaietako sailaren zerbitzu bat da eta orokorrean familia-bitartekaritza borondatezko prozedura da, profesional batek edo batzuek aurrera eraman dutena. Kualifikatuak, inpartzialak eta erabakitzeko ahalmenik gabeak dira profesional horiek, eta familia-gatazka duten aldeei laguntza eta jarraibideak ematen dizkiete gatazka amaitzeko beharrezkoa den elkarrizketa bidezko prozeduraren bitartez irtenbide onargarriak aurki ditzaten. Zerbitzua doakoa da eta nork bere borondatez erabiltzekoa.

Zer eskaintzen du?

Familia edo bikote arazoak azaldu edo ulertzeko gune neutral bat, komunikazio errazteko eta familia arazoak konpontzeko itxaropenak leku bat aurkitu dezan. Zehazki, haustura egoeran dauden bikoteei erabakiak hartzen laguntzen du, denen arteko adostasuna bilatuz. Familien kasuetan, desadostasun iturri ezberdinetatik sorturiko gatazketan lagun dezake zerbitzu honek: mendeko pertsonen zaintza, belaunaldien arteko gorabeherak, oinordetza edo familia negoziokoa...

Non aurkitu dezaket?

Lehenengo eta behin, herriko gizarte zerbitzuetako gizarte langilearekin elkarrizketa egitea gomendatzen dizugu, berak gatazkaren eta Familia Bitartekaritza zerbitzuaren oinarriko balorazioa eta informazioa egiteko eta jasotzeko hurrenez hurren. Bestetik, zuzenean ere jo dezakezu zerbitzu publiko honetara. Gipuzkoak Donostian du bulego nagusia eta hauxe duzue hango telefonoa: 943 57 62 08. ■

Familia bitartekaritzarako zerbitzua



Itsasondoko mendietan ibiltzeko, gozatzeko eta ikasteko txangoa

Aurreko larunbatean, hilak 1, Murumendira irteera egin genuen, Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailak antolatuta.

Itsasondoko mendi honek eta inguruak hainbat balio gordetzen ditu, eta askotan gertatzen den bezala, gure etxetik gertu egoteagatik gutxien eurak ezagutzen ditugu. Irteera honen bidez, betidanik ezagutzen ditugun tokiak beste begi batzuekin begiratu nahi genituen. Horrela, txangoan lagundu ziguten adituen laguntzarekin, leku horiek gordetzen dituzten balio historiko, paisajistiko, naturalistiko zein mitologikoak ezagutzeko aukera izan genuen.

Eguraldiari aurre eginez, 15 bat lagun abiatu ginen loaia auzotik Murumendiko tontorrerantz. Behelainoa lagun, bide honetan topatzen genituen balio naturalistikoaren inguruko azalpen eta bitxikeriak entzuteko aukera izan genuen Aranzadiko botanikarien eskutik: loaia putzua, landa auzoen garrantzia, azken urteetako paisaiaren bilakaera, zuhaitz mugarratuen berezitasunak, landare espezie bereziak... Eta azkenik, tontorretik gertu baso naturalen berreskurapenerako Udalak aurrera eraman dituen ekintzak gertutik ikusi eta ezagutzeko aukera izan genuen.



Loaia putzuaren aurrean; ingurunearen balio naturalistikoaren berri ematen.

Behin tontorrera iritsita, Suhar Arkeologia taldekoek inguru honek historian zehar izan duen garrantziaz hitz egin ziguten. Talde honek bertan egin dituen indusketen arabera orain dela 2.000 urte inguru bi harreresiz inguratutako Burdin Aroko herrixka zegoen tontor honetan. Ikerketa honetan lanean aritu den Ander Arresek, zibilizazio horretako aztarnak erakutsi eta garai hartako harresiak izango zirenen gainetik gidatu gintuen Burdin Aroko herrixka irudikatuz.

Txangoa amaitzeko, inguru eta honi lotutako istorioak ongi ezagutzen dituen Agustin Linazasorok Mariren Kobaraino gidatu gintuen basoan barrena. Egun heze eta lainotsua izanik, xarma berezia zuen basoak, eta esan daiteke Mariren Koba ezagutzeak txangoari amaiera magikoa eman ziola. ■



Suhar arkeologia taldeko Ander Arrese, Murumendiko aztarnen inguruko azalpenak ematen.

Oria ibaian dauden hondakinak biltzea

Urteko lehen hiruhilabetekoa azken urteetako euritsuenetakoa izan da. Jansandako euriteen ondorioz, Oria ibaiak gainezka egin du, eta inguruneetan zeuden materialak garraiatu ditu. Euriak gutxitzean, ibaiaren ohiko egoerara bueltatu da eta ibai ertzetan eta arbolletako adarretan trabatuta, plastikoak, ontziak, paletak eta tutuak bezalako hondakinak ageri dira.

Hondakin horiek ingurumenean eta paisaian sortu dituzaketen kalteez jabeturik, eskualdeko garapen agentziak, GOIEKik, Foru Aldundiaren lankidetzari esker, ibai ertzak garbitzeko lanak martxan jarri ditu. Hondakinak erretiratzeko lanak, Gureak taldeko Goroldi enpresaren bitartez egiten ari dira. Lan horietarako langabezia dauden eta ezintasunen bat duten lau goierritar kontratatu dira.

Egitasmo hori GOIEKik eskualdeko ibai ertzak berreskuratzeko hartu zuen konpromisoaren barruan kokatzen da. Aranzadi Zientzia elkartearekin batera, flora espezie inbaditzaileei aurre egiteko plana eratu zen, eta plan horretan jasotako lanak 2011. urtetik ari dira garatzen. Espezie inbaditzaileei aurre egiteko planak Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziazioa du, eta Uraren Euskal Agentziarekin (URA) lankidetzan garatzen da.

Eskualdeko ibai ertzetan dauden flora espezie inbaditzaile garrantzitsuenak Fallopia japonica, Helianthus tuberosus eta Buddleja davidii dira. Espezie horien aurkako erradikazio lanak gauzatu dira azken bi urteetan eta ibarbasoko habitaten errestaurazioa eta etorkizunerako kolonizazio berrien aurka, prebentzio mekanismo bezala, 1.500 zuhaitz eta zuhaixka (haltza, sahatsa, intsusa, lizarra...) landatu dira eskualdean.

Bestetik, aipatzekoa da, azken asteetan Cortaderia selloana, pampako plumeroa bezala ezaguna den espeziaren aurka egin diren lanak. Espezie hori apaingarri gisa dago eremu pribatu askotan, eta medioa eraldatzeko duen gaitasuna ikusirik, apaingarri gisa erabili daitezkeen beste espezie edo fruitu arbolak jarrita ordezkatzeko proposatu zaie lur jabeei. ■



Erreka bazterrek plastikoz josiak daude gaur egun.

Zer dakigu Itsasondoko parte-hartze prozesuaz?

Herrian egin den parte-hartze prozesuaren berri izan al duzu? Parte hartu al duzu saioetan? Zergatik? Horrelako saioak behar al dira Itsasondon? Zergatik?



Iker

- Bai, jakinaren gainean nengoen.
- Bai, herri bizitzako taldean parte hartu dut. Herrikoa izanik, nire beharra dela uste dut horrelako ekintzetan parte hartzea, herria eta bertako ekintzak aurrera eramateko.
- Nik uste dut beharrezkoa dela. Herri txiki batean denok gure partetik jarri behar dugu, herri bizitza aurrera eraman ahal izateko.



Nekane

- Bai, ezagutzen nuen.
- Ez dut parte hartu.
- Bai, jendearen iritzia jakiteko eta parte hartzeko beharrezkoak direla uste dut.



Rosa

- Ez, ez dut ezagutzen.
- Ez, ez dut berririk izan eta.
- Bai, uste dut beharrezkoak direla.



Javi eta Maria Teresa

- Ez dugu ezagutzen.
- Ez dugu parte hartu.
- Bai, beharrezkoak dira.

Krisialdia mundu birtualean

Bideo-joko sektoreak ere ezin dio ihes egin jasaten ari garen krisialdi honi.

Bai musika sektoreak bai bideo-joko sektoreak "pirateoari" leporatzen zioten beraien diru eta salmenta galera. Hori egia izan daiteke, baina alde batetik bakarrik.

Egia da bideo-jokoak deskargatzea ez dela guztiz legala, baina esan beharra dago oso merkeak ere ez direla. Merkeago ateratzen da Internetetik erostea edo esportazio joko bat erostea, Espainiako nahiz Euskadiko bideo-joko denda batean erostea baino. Gainera, gaur egungo aurrerapenak ikusita, formatu digitala geroz eta gehiago saltzen da.

Zer gertatu da azken bost urte hauetan? Bada, bideo-jokoan bezeroak geroz eta exigenteagoak direla. Formatu digitala sartu da. Azken finean, sekulako iraultza egon da. Iraultza hori gehienbat pirateoari aurre egiteko eginda dago. Badirudi arrakasta izan duela, Interneten prezio onetan ikus baitaitezke gaur egun bideo-jokoak.

Baina, bestalde, bideo-joko konpainia guztiak ez dira moldatu guztiz iraultza honek eskatzen duenera. Horren ondorioz, galerak sortzen zaizkie beraien produktuak ondo saltzeko. Gainera, mundu osoan jasaten ari garen krisia gehitzen badugu, oraindik okerrago jartzen zaie jokoak sortzeko eta saltzeko.

Gutxi gorabehera, hau dena ikus daiteke SEGA konpainiak izan duen garapenean. SEGAk bere kontsola propioa zuen, eta bakarrik bere kontsolentzako ateratzen zituen jokoak. Baina, Japoniako krisi ekonomikoarengatik, kontsola propioak sortzeari uko egin zion (azkena DreamCast izan zen). Eta orain, SEGAren pertsonaia famatuena (SONIC) beste kontsoletan ikus daiteke, adibidez, bere lehiakide zuzenena den NINTENDOn.

Hala ere, SEGA oraindik bizirik dago, beste kontsolentzako jokoak sortzen. Baina, badaude makina bat bideo-joko enpresa itxi egin direnak, ezin izan diotelako krisiari aurre egin.

Asko dira, baina nik bi bakarrik aipatuko ditut, nire ustez, orain arte itxi diren garrantzitsuenetarikoa: THQ eta LUCAS ARTS.

THQ oso famatua da, marrazki bizidunei buruzko bideo-joko asko atera izan baititu. Enpresa hau bi publiko klasetara dago zuzenduta: umeei eta sagak gustatzen zaizkion publikoari.

Hala nola, Bob Esponja, Ren eta Stimpy, Bakarrik Etxean, Jimmy Neutron, Izugarriak... sortu zituen umeentzako.

Helduentzako, berriz, Darksiders (lau zati dira, baina bi bakarrik ateratzea lortu du), Avatar, The Punisher, Juiced, Saints Row, Warhammer... Saga handiak guztiz bukatu gabe utzi behar izan ditu.


Lucas Arts, berriz, nork ez du ezagutzen? George Lucasek sortutako filiala baita. Enpresa hau izan zen aurrenekoa Stars Wars saga bideo-jokotara eramaten. Baina, ez bakarrik bere joko berezia, beste famatu batzuk ere sortu zituen.

Hala nola, Monkey Island, Day of the Tentacle, Maniac Mansion, Stars Wars saga guztiak, Indiana Jones saga guztiak, Outlaws...

Ez dakigu etorkizunean bideo-joko enpresa gehiago itxiko diren, baina dagoeneko gaur egungo exigentziak ikusita, edo tendentzia berrietara moldatzen dira edo THQ edo LucasArts bezala gertatuko zaie.

Lehen, enpresa batek bestea xurgatzen zuen (adibidez, Taito, AKN, Konami...) eta izena mantendu arren, xurgatu duen enpresari esker oraindik bizirik daude. Baina, gaur egungo tendentzia ikusita, enpresa handiek ere zailtasunak daukate txikiak edo ahulak erosteko.

Espero dugu tendentzia hau aldatzea, orain arte jokoak kalitate onarekin ikusten izan baitira. Baina, egia esan beharra dago: gaur egungo jokoak ez ditu guztiz asetzen jokalarien exigentziak, antzinako jokoak bezala. Grafikoki ondo, baina edukietan eskas. ■



Bideo-jokoeta bideo konpainia ezagunetarikoa batzuk.



Garai bateko San Juanak

Karmen Garmendia Amundarain
Iraola baserriko alaba zaharrena
(85 urte)



Zaharrak berri atalean, izenak berak garbi dioen bezala, garai bateko kontu eta pasadizoak berritzeko tenorean Itsasondoren eta bere herritarren bizi-istorioak bildu, josi eta alez ale zuri kontatzera gatoz irakurle. Itsasondo 2.0 herri aldizkariak 20. alerainoko ibilbidea egin ostean, mugarri berri bati jarraiki, zuek herritarrok gogoan dituzuen kontakizun, pasadizo eta gertaerak entzun eta orrialde hauetan kontatzera gatzozkie. Lekukotasun hori lehen eskutik ezagutu eta jaso nahi izan dugu eta horretarako, nor hobe gure herriko aitona-amonak baino? Zaharrak berri atala osatzeko belaunaldi zahararen altoan pausatu eta adinean aurrera egin duten herritarrengana gerturatu gara aurreko gizaldietako gizon-emakumeen bizimodu eta bizieraz galdezka. Orain artean ahoz aho, zaharretatik gazteenetara helarazi den oroimen historikoaren herentzia preziazatu honen jabe egiteko xedez, belaunaldiz belaunaldiko transmisioari hauspoa ematera gatzoz egitasmo berri honekin, belaunaldi zaharretatik gazteenetarako soka irau-narazi eta berandu baino lehen gure oroimen historikoaren eta herri istorioen mosaikoa osatzeko ilusioz.



Gaurkoan, ekaineko hilean sartu garela aprobetxatuz, San Juan bezperako ohitura zaharra berritu nahi izan dugu eta horretarako Iraola baserriko Karmen Garmendiarekin aritu gara berrikeretan. Baserriko sukalde epelean kontatu dizkigu Karmenek urteko gaurik motz eta berezienetakoa den udako solstizioaren ospakizunen altzoko oroitzapen kuttunen inguruko pasarteak.

Berarekin izandako solasaldia hitzez hitz transkribatu da, hau da, hark esan bezala idatzi da. Izan ere, Euskal Herriko udalerrri orok bezala, Itsasondok ere izan eta badu bere hizkera propioa, denboran aldatuz joan dena, bada herria bera eta bere herritarrek besteetatik berezi egin dituen. Mintzaira propio honek berekin duen altxor preziazatua ere islatu nahi izan dugu orrialde hauetan eta haatik baztertu dugu kontakizuna euskara batuan egitea. Gozatu!

Nola goatzen dezu San Juan bezperan ospakizune?

Asten giñen aurretik zaborra juntatzen, sasik, egurre bi-latzen bagenun egurre, eozin zaborra. Pilla bat in ta geo, San Juan bezpera etortzen zanen, abarka zarrak puskau-takok etxen izaten zien ta haik hartu ta alanbre batekin egurrei hue josi, agea o egur luze xamar bati, ta su eman abarkai ta haik bizkarren hartuta ta... "viva San Juan bez-pera!" esaten genun. Gerra denborea nola zan ez geneu-ken euskeraz hitzaitteik... Haik hartu ta juten giñen lraulatik Izarrea igual. Hemen kuadrillea juntatzen giñen, neska ta mutil, ta "viva San Juan bezpera"! Hauntza jun ta honea etorri, abarkea sutan genula!

Hoi ze itten zenuen sue piztu aurretio o sue ia piz-tutakon?

Su hortan bertan piztu ta abarkak sutan jarri han bertan ta... Guk itten giñuzten paseo batzuk!

Ta helduk ze itten zuen bitarten?

Hantxe eoten zien, guri beida, ta geo, sue bukatzen zan garaien eo, eamaten zuen zeoze, ardo pixkatekin ogie ta gaztaia eo... talo pixkat han jan ta ardo pixkat ean ta ho-laxe pasatzen zan.

Ze itten zan etxe bakoitzeko su bat ala auzoka itten zenuen?

Jenealen bakoitzek itten zon bere sue. Guk han itten genun, Estralden. Aldamenekok, etxekonekonak ta gu. Gero Joxe Manuel ta juten zien gukin batea aiketa su hura

bukatu arte, ia itzaldu arte han eoten ginen. Ta geo, hean aittek ta amak etxe ingurun, atarin, beste su bat itten zuen. Haik zaharrak, danak etzien jungo! Gu sasoikok, geon kontua ibiltzen ginen.

Sue piztez zein arduratzen zan?

Arduratu... ez dakit gure kuadrillan zein izango zan. Etxeko aittek o amak, etxe bakoitzen nola itten zan ta gaiñea esa-nahie emen zon su horrek sugak etxe ingurutik izutzeko. San Juan bezperan sue eiñ, sugak etxe ingurutik izutzeko, ze haik...!

Sugek bakarrik o espiritu txarrak e uxatzeko?

Baita, baita.

Garbitzeko ordun, pertsonea garbitzeko, ze salto itten zan su horren gaiñetik ala?

Guk e saltoka pasatzen genun su hua. Nik ez dakit nola ez ginen errenditzen ta erretzen bertan!

Bueltak o ematen zitzaizkion suri?

Gaiñetik salto! Ikusten zan beidatu Arama, beidatu Altza, guztin sue piztuta ikusten zan. Etzuen igual ingo su haun-die baiño...

Noiz ematen zitzaion su pilla hari?

Iluntze aldea, hortxe, illundu baño lehentxeo eo, sue itten zan ta oso ondo pasatzen genun. Bueno! Kanpaiak e jo-tzen ziela uste det, bai San Juanetan eo San Juan bezper-an sue itten zanen kanpaiak bai, ta ez dakit San Juan eune jai izaten zan eo... Ordun beinkatzeare uste det gau-zak eamaten giñuztela! Lizarra jartzen zan atetan propio ta San Juan lorak e biltzen giñuzten ta tarron udetan ja-rrita eukitzen giñuzten.

Goatzen al zea San Juan bezperan suri ze esaten zitzaion?

Nik ez dakit ze esango giñun suri. Viva San Juan bezpera! Viva! Hoi esaten genula bai. Enaiz ondo akordatzen ni ho-rrekin... Behin akordatzen naiz gerra denboran nola, ai-tzen genun soldaduskan ta hiltzen zala jendea ta akordatzen naiz nola holaxe eun baten nola esan nun, viva los martires de surta!. Nik ez dakit nola esan nun, erotuta o zer neon hoi esateko! Denak parrez hasi zitzaizkien! Ez dakit... umea izango nintzen, eskolan nebillen artan ta... Nik ez dakit hoi nun aittuko nun, viva los martires! So-brare aittuko nun nola hiltzen zuen gerran jendea ta nik viva los martires de surta esan!.

Trikitixa eo soiñue ta izaten zan o su bueltan eoten ziñeten lasai?

Sue hartuta hautza ta honea! Izarreko bide hoik gaur egun baiño garbiga zeren ta... uf...

Ta aurretiko garaietan nola ospatzen zuen eo goa-tzen al dezu zure aitte-amak eta?

Gure aitte-amak e holamuz ingo zuen! Guaiñ... igual sal-toka etzien ibiliko baiño sue piztuko zuen.

Zuri ze iruitzen zaizu, San Juan bezperako ospaki-zunek lehen ta oaiñ esanahi berdiñe dola?

Keba! Bueno, esanahi berdiñe eukiko do baiño ordun be-zela ez gea... Guaiñ ze itten deu ba! Hemen jende pixkat etxe ingurukok juntatzen bagea, kontu batzuk esan ta zeoze eamaten bada hartu ta ... Gaztek eta lehen, nola gazte gehio giñen baserrian behintzat! Leku batzutan sue piztuko due ta han eongoie, nola dan hoi betiko gauza bat! Gurea hala izaten zan!.

Abarkana behintzet goatzen dezu?

Bai!.

Ta ze itten zien urrutako abarkak gorde ta haik erre?

Abarkak surtan erre! Ondo aprobetxautakok izango zien! Etzien izango erdipurdikok!

Agea aipatu dezu aurrez... Zer da agea?

Agea sagarrak botatzeko ta izaten daba, makila luze bat! Harrei puntan uzten giñun adar bat o han katonatzeko alanbrea, bestela lixoa baldin bazan irrist itten zon ta!

Zenbateko neska-mutil kuadrillea juntatzen ziñe-ten?

Iraulan e... Joxe Manuel ta Bittor bi, Joxe Inazio zana hiru, Joxepa lau, gero gu... ni, Tomaxa, Maria, Arantxa, Andone, Joxe Antonio guaindik txikie izango zan... ta geo etxe-konekok... 10-15 bat lagun juntauko giñen.

Sorotan ta zeoze itten zan goatzen dezu?

Guk San Juanetan erramue... San Juan bezperan aurretik izaten zan erramu eune. Gurutzek itten zittuen, erramun adarra luze xamarra eamaten zuen ta hostok tximixtea ta trumoia zienen suri botatzeko ta ur bedeinkatuere ekartzen zan, han busti ta sorok bedeinkatzen zien. Ordun apaizek eta etortzen zien etxea sorok beinkatzea. Egurre o makilla jasotzen zan gurutzek eta itteko. Aitte han aitzen zan, egualdi txarrakiñ gurutzek in ta kandela deinkatuere bein-katzen zan ta kandela tantok botatzen zizkien gurutzei, ta haik jaso. Gurutze pillea itten zon! Gero soro bakoitzen o belardin o, makilla baten puntan jarri gurutzea, ta hue lu-rran sartu ta... etxeko aten e bai josita gurutzea.

Eguzki-loreare bai. Mendia belarretan o juten zienen billatzen bazuen ekartzen zuen ta hue aten jartzen zan. Holaxe izaten zien gure San Juanak! Geo San Pedrotan e itten zan sue, bitan itten zuen baiño San Juanetakoa baiño senzillogoa izaten zan.

Gerra ondoren e berdiñ?

Bai, nik ezaugerea detenetik, gu txiki-txikik giñela amak ta re ingo zuen. Ordun gauzak hala zien... Oaiñ bezela, me-zeta juneztare etzaiu inporta baiño ordun mezetare jun in behar zan, pekatu mortala zan ta. Oaiñ gauza hoik asko kanbiatu die, asko. ■



18. Ibilbidea

Mirandaola-Barrendiola-Mirandaola

Deskribapena: Mirandaolako parketik aterako gara, bertatik buelta bat eman eta gero. Trenbideruntz hartuko dugu. 100 m ibili ondoren, trenbide horren azpitik doan tunel bat ikusiko dugu. Tuneletik pasatu gabe, eskuinera eta trenbidearen paralelo doan bidea hartuko dugu. In-guruz gozatu aurrera jarraituko dugu, erreka zeharkatzen duen zubiraino. Erreka gurutzatu eta Pastaingoa Berri baserriaren atarira iritsiko gara. Puntu honetan, erreka paralelo, gure ezkerretara, doan asfaltozko errepidea hartuko dugu. 300 m ibili ondoren, Telleriarte auzoko plazara iritsiko gara. Urola errekaen bazterretik, goruntz jarraituko dugu. Laister Elorregi dorretxea ikusiko dugu ezkerretara, eta eskuinetara San Juan eliza.

Aurrera jarraituko dugu Urola ibaiaren bazterretik. Ugarkalde baserriaren ataritik igaroko gara eta berehala gure aurrean bost arkuko zubia ikusiko dugu. Azpitik pasatzerekin batera Brinkola auzora iritsiko gara. Errekaen bazterretik jarraituta, Ola Zahar baserri iritsiko gara. Baserri honen parean bidegurutze bat dago. Eskuineko bidea hartu eta Barrendiolako urtegiara joango gara. Asfaltozko bideari jarraitu eta laister ezkerretara urtegi urtegia aurkituko gugu. Goruntz jarraitu eta Barrendiolako urtegiara iritsiko gara. Urtegiari bira emango diogu. Behin bira osoa eman diogunean hasierako puntura iritsiko gara. Orain, atzera itzultzeko, lehen egindako bide berbera egin beharko dugu alderantzi. ■

Iraupena: 2 ordu eta 50'
Ibilbidea:
Mirandaola-Barrendiola: 80'
Barrendiolako bira: 30'
Barrendiola-Mirandaola: 60'



01 Pastain baserria



02 Elorregi Jauregia



03 Brinkolaruntz



04 Ugarkalde



05 Brinkola



06 Olazar baserria



07 Barrendiola urtegia



08 Barrendiolako bailara



09 Brinkola



Mirandaola 10

guraso elkarte

Maiatzaren 18an patinatzen legorretara?

Asmo hori genuen, behintzat, aurreko larunbatean 11:00etan frontoian azaldu ginonok!



Guraso eta haurrak hockey stick-ekin



Guraso eta haurrak Arbel Aitz elkarte

gazteria



Aste Santuko oporretako ekintzak



Olaberriko karretan

Hainbeste asteartetan ikasten ibili eta gero, patinatzen Legorretara joateko mentalizatuta geunden. Batzuk erraz asko joaten dira! Beste batzuei, aldiz, gehiago kostatzen zaigu erori gabe, edo behintzat nahiko zuzen Berostegira ere iristen. Azkeneko asteartean horrela ibili gara "entrenatzen". Berostegira joanez, gure helburua zen maiatzaren 18an Legorretara joan eta baita bueltatzea ere!

Azkenean, azken bolada luze honetan ez bezala, aspaldiko partez DITXOSOZKO EURIA EGIN ZUEN!! Ia ahaztuta geunden zer zen fenomeno arraro hori, e? Enfin...

Hasteko, 11:00etan elkartu eta ekainaren 9an Olaberri izango den Gipuzkoako Eskola Txikien festarako bideo bat grabatu genuen; patinatzen, bai.

Gero, hockey stick-ekin partidutxo bat egin genuen.

Ostean, Arbelaitz elkarte bazkaldu genuen. 65 ginen! Bukatzeko, Itsasondoko Ijittu Dantza taldeak aparteko emaldia eskaini zigun.

Egun polita igaro genuen.

Azkenik, eskertu parte hartu zenuten guztioi eta baita eguna hain ondo joateko lanerako zuen burua eskaini zenuen gustillo ere.

**ESKOLA TXIKIA BIZIRIK!
ITTURRI TXIKI GURASO ELKARTEA. ■**

Ludoteka

Aste Santuko oporretan hurrek hainbat ekintza egiteko aukera izan zuten. 15 hurrek eman zuten izena eta Ainara Urteaga hezitzaile eta suspertzzailearekin tailerrak egin zituzten, horien artean murala eta fruten brotxetak.

Apirilaren 10ean, berriz, Itsasondoko ludotekak atek ireki zituen lehen aldiz. Udaletxe beheko solairuan asteazkenero 24 haur eta hezitzailea elkartzen dira ekintzak egiteko eta jolasteko. Eskulanak, sukalde tailerra, altxorren bilera, film emanaldia...egin dira. Horrez gain, ludoteka ere poliki-poliki forma hartzen ari da, jostailu berriak ditugu, eta horrela, hurrek beraien artean jolas egiteko aukera dute.

Ludoteka irekita egongo da ekainaren bukaerara arte, eta gero atek itxiko ditu irailera arte.

Gaztelekua

Bederatzi bat lagun elkartzen gara gaztelekuan ostiralero. Ekintzak egiteaz gain, liburu azoka antolatu dugu, udako ekintzak pentsatu eta antolatu ditugu, sukalde tailerlean gauza desberdinak egin ditugu, Iker Mendizabalek mamia egiten erakutsi digu...Aste Santuko oporretan ere, bazkaria eta irteera egin genituen..Ederki pasatzen dugu gaztelekuan! Uztailerako egitarau zabala antolatu dugu gaztelekutik:

- Uztailak 4: Olaberriko karretara irteera
- Uztailak 10: Sobron abentura parkera irteera
- Uztailak 17: afarria eta pelikula gaztelekuan. ■

III. Herri Eguna, guztiona!

Ekainaren 8an, urtero bezala, Itsasondoko gazteek Herri Eguna ospatu genuen.



1 7:00etan hasi genuen jai, frontenis txapelketarekin. Bertan, 10 taldek parte hartu zuten, eta irabazleak Mikel Gaztañaga eta Mikel Aranburu izan ziren. Hauei sari bikaina eman genien: Kaxintanen gosari bana.

Suad ere bertan izan genuen hennazko tatuaiak egiten, eta herritar guztiok apaindu gintuen.

Tortilla patata lehiaketa 20:00etan izan zen eta herriko jende ugari inguratu zen gaztete atarira. Oso jendetsua izan zen lehiaketa, bederatzi taldek parte hartu baitzuten. Irabazleak, I. Herri Egunean bezala, Imanol Iturrioz eta bere taldea izan ziren. Hauek ederki ospatu zuten garaipena, xanpainarekin topa eginez. Afaria ondo bukatzeko eta gau luzea hasteko, kafea eta kopak zerbitzatu genituen, herritarrei parte hartzea eskertuz.

Jarraian, kontzertuak hasi baino lehen, I. eta II. Herri Egunetako argazkiekin bideo bat eskaini genuen, oroitza-pen politak etorri zitzaizkigularik burura.

Gauean Bizkaiko bi musika talde izan genituen, Amorrú eta Haxotz, eta Goierriko beste bat, Bolkete. Hauek giro aparta jarri zuten eta denok gustura ibili ginen. Gaua ondo amaitzeko 3 Dj izan genituen, hauen artean Josu Sarasola itsasondoarra. Ederki aritu ziren eta denok dantzan jarri gintuzten.

Beste herrietako jendea etorri bazen ere, herritarrak gelditu ginen azkenean gaztetean, eta gu nekatzerako, goizak argitu zuten.

Hasiera batean, jai hau herritarren parte hartzea sustatzeko egiten hasi ginen, baina aurtendik hasita eta etorkizunean ere gure helburu nagusia herriko gazteenak jaiaren antolatzaile bihurtzea da. Lehenengo urteari begira, ez genuen pentsatuko jai honek horrelako arrakasta izango zuenik, eta asko ez badira ere, hirugarrena egitea lortu dugu, beraz, **ESKERRIK ASKO ITSASONDO!** Datorren urtean ere hemen izango gara. ■

Auzolana

Plazan hurrek min har ez dezaten, garasoek lanak burutu ditugu.

Herriko plazan elkartzen garen gurasoek kezkatuta genbiltzan plazako arbolak inguratzen dituen adreiluzko inguratzailearekin. Dagoeneko, hainbat hurrek kolperen bat edo beste hartu dute, eta istripu larriagoren bat gertatu aurretik, adreiluzko inguratzailea kentzea komenigarria zela pentsatu genuen. Lan handia ez zenez, guk geuk (gurasoek) egin genezakeela pentsatu genuen, auzolanean.

Esan eta egin. Udalari baimena eskatu genion eta behar genituen tresna eta materialak eskuratzeko zizkigula agindu zigun.

Egun pare batean elkartu ginen. Egun bakoitzean ahal zuena azaltzen zen, bakoitzak zekienarekin ahal zuen moduan laguntzeko.

Lan polita egin dugula uste dugu; oraindik falta bazaigu ere, laster amaitzea espero dugu, eta aurrerantzean ere bakoitzak bere aletxo jarri eta eskainiz beste proiekturen bat abian jartzeko aukera ere ez dugu bazterzen. Denborak esango du...■



Gurasoak lanean



Zuhaitzak inguratzen zituen ladriluzko hesia

Hesia berria egiten

Hesia berria nola geratu den

Itsasondoko Itsasondo 2.0 herri aldizkaria

2008. urteko urtarrilean argitaratu zen Itsasondo 2.0, Itsasondoko herri aldizkariaren lehen alea. Baina, ez zen ezerezetik sortu, aurrekari batzuk izan baitzituen. 2003an Zubipe aldizkaria argitaratu zen, Udalak sustatutako argitalpena. Herri administrazioaren informazioa zabaltzeaz gain, herriko gaien eztabaida leku izan nahi zuen; baina, bi ale bakarrik argitaratu ziren. 1996ean Kantillape sortu zen, baina orduan ere 65 zenbaki baino ez ziren argitaratu. 2008an, Itsasondoko Udalak bere gain hartu zuen aldizkariaren ardura osoa, eta herritar talde bat, Udalaren laguntzarekin, proiektuan lanean hasi zen. Zarata handirik atera gabe, gure herriko egoeraren ispilu iraunkorra izan nahiko luke. Urte hauetan guztietan, Itsasondo 2.0 gure herriari buruzko informazio zabala ematen saiatu da. Herriko elkarte, erakunde eta talde guztietako berriek lekua izan dute gure herri aldizkarian, herritar guztientzat zabalik egon baita. Aldizkari irakurteraza, eta euskaraz irakurtzeko ohitura sortzeko bide ere izatea lortu duena.

2008ko urtarrilean geroztik hiruhilero kaleratu da Itsasondo 2.0 herri aldizkaria, herritar guztion aldizkaria. Hain zuzen ere, apirilaren 12an ospatu genuen 20. alea kaleratu izanaren festa eta bertan, herritarren nahiz parte-hartzaileen iritzia jasotzeko tartea izan zen. Urte hauetan guztietan hainbat gai jorratzen saiatu garen arren, iritzi ezberdinak eta proposamen berriak jasotzeko prest egon gara. Hona hemen tertulian atera ziren proposamenak:

- Itsasondoko istorio zaharrak biltzen dituen atala.
 - Inkestaren atala oso gustukoa.
 - Udaleko lanen inguruko informazio gehiago; herrian burutu diren lanen inguruko informazioa; egin diren edo egiteko dauden gauzen gaineko informazioa; hartu diren erabakien gaineko informazioa...
 - Aldizkarian parte hartzen duen jendearen harteko harremanak estu mantendu.
 - San Juan, Iraola, Urki... inguruan ditugun auzoetako istorio edo informazio gehiago.
 - Aldizkarian ohar moduan jakinarazi, nahi duenak baduela bere tartea aldizkarian eta gai konkretu baten gainean hitzegin nahi badu, esan besterik ez duela...
 - Gai librea atala: jendeak bere gustuko artikulak idatzi eta argazkiekin batera udaletxera bidaliz gero, aldizkarian argitaratuko da...
 - Lan talde antolatu bat sortu. Idazten trebea den norbait, istorio zaharrak dakizkien norbait detektatu, ideia berriak dituen jendea.... "Batzorde" moduko bat sortu.
 - Herrikan kanpoko informazioa bilduko duen atala. Informazio internazionala (katastrofeak, mundu mailako informazioa...)
 - Herriko bidaiarien atala; jendeak bere bidaien berri emango digun atala, aterpetxeak, ibilbideak, egun pasak, tren-hegazkin-bizikleta....
 - DENBORAPASAK. Orokorrean gustukoak ziren; bi argazkien arteko ezberdintasunak, herriko galderak, esaera zaharrak...
 - Landa eremuko bizimodua gerturatzea; SAGARDOA nola egiten zen, GARI JOTZEA, ARDI ILEZ EGINDAKO KOLTXOIAK, TXERRI FESTA...
 - Argazki zahar eta berri baten arteko aldea ikusi eta komentatzen den atala, gaur egungo bizimoduak jasan dituen aldaketaz konturatzeko...
 - Argazki zaharren atala, herritarrak identifikatuta azaltzen diren argazkiak (jendearen izenak, urtea, toki...).
- Horiek dira egun horretan jasotako zenbait proposamen eta pixkanaka Itsasondo 2.0 aldizkarian lantzen joango garen gaiak. Beraz, badakizue, herri aldizkaria denon aldizkaria izan dadin... ANIMATU eta PARTE HARTU!!



Urkiko maiatzeko jaiak 2013



Maiatzaren 3an, Gurutze Deunaren egunean, hasi ziren jaiak. Meza ondoren hamaiketakoa, jangela puntaraino bete zelarrik, eta eguerdian bazkaria egin zen eta iluntzean erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin, oso giro alai eta jendetsuarekin.

Maiatzaren 4an, suziriak jaurti ondoren, XXX. Mus Txapelketa jokatu zen. Hainbat bikote lehiatu ziren, eta final estua jokatu ondoren, Antonio Etxeberria eta Joxe Luis Aranburu izan ziren garaileak, 3-2-ko emaitzaz irabazi zitelarik Lontxo Arza eta Iñaki Etxanizi. Ostean, lagun arteko afaria egin zen elkarteetan. Jangela bete egin zen. Ondoren, Laja eta Mikel trikitilariekin erromeria, goizaldera arte.

Maiatzaren 5ean (igandea), eguraldia lagun, jende asko bildu zen bai mezara bai hamaiketakora bai bazkarira, Imanol Astiazaran eta Lutxurdio trikitilariak lagundurik.

Arratsaldean, lehenbizi Emakumezkoen Toka txapelketa jokatu zen. Bertan, 12 emakumek parte hartu zuten eta bi tiradaren ondoren, Lourdes Aranburu izan zen irabazlea.

Ondoren, Gizonezkoen XXX. Toka Txapelketa jokatu zen. 24 partaide izan ziren eta gazteenetarikoa zen Haritz Garmendia izan zen txapelduna.

Iluntzean erromeria egin zen, egun osoan trikitia jotzen aritu ziren Imanol Astiazaran eta Lutxurdio trikitilariekin.

Urkiko jaien aldeko antxumearen zozketa egin ondoren, zorteduna Anjel Mari Lasa izan zen.

Itsasondoko I. Mami Txapelketa I. Saria

Maiatzaren 31n, Jubilatuta elkarteak Itsasondoko I. Mami Txapelketa ospatu zen. 13 herritarrek aurkeztu zituzten beraien mamiak eta lkerrek, Rosik eta Mattinek egin zituzten epaile lanak. Guztiak probatu eta eztabaidatu ondoren, hirurek adostu zuten Amaia San Sebastianek eginiko mami zela denetan gozoena. Bigarren postua, Maria Jose Jauregik eginiko mamiak eskuratu zuen.

Jende ugari agertu zen, eta behin sariak banatuta, bertaratu ziren guztiei mamiak probatzeko aukera eman zitzaizen. Haurrek, helduek, gurasoek, hainbat mami dastatu zituzten eta giro paregabea izan zen Jubilatuta elkarteetan.



Txikia, 40 urte eta gero, Txikiak bizirik dirau

Badira 40 urte Espainiako polizia Eustakio Mendizabal Benito, Txikia, tiroz hil zuela. 1973ko apirilaren 19a itsasondoa orok ez ezik, euskal herritar ugari izango du gogoan, Txikia erreferentzia izan baitzen Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan. Hori dela eta, Itsasondoa garai hartako gertakizunak gogora ekarri eta oroimena berreskuratzeko hainbat ekimen egitea erabaki genuen. Erabaki eta egin.

Txikiaren biografia argazki eta dokumentu andanaz jantzen duen erakusketarekin ekin genion apirilako bigarren asteari. Erakusketa hark bat baino gehiago, gazte zein heldu, itsasondoa zein kanpotar, utzi gintuen harri eta zur, garai hartako istorioak entzunak agian bai, baina hain aberaski azalduak ez baikenituen ezagutzen. Erakusketa bera gure herriak oroimena berreskuratzeko hasia duen bidean altxor preziazua dugula ezin uka genezake.

Astearen erdialdera, berriz, Mikel Zubimendi bergararra izan genuen gure artean, 50 urteko borroka abiapuntu hartuta egun aurrean ditugun erronken gaineko hausnarketa partekatuzko asmoz. Hitzaldia, interesgarria ez ezik, emankorra ere izan zela esan genezake, hizlariaren zintotasunak eta etengabeko metaforek inor ez baiktuen epel utzi. Hipopotamoak, errotondak... zer esana eta zer pentsatua eman zigun hurrengo egunetan ere.

Azkenik, apirilaren 19an bertan, ekitaldi xume baina hunkigarria egin genuen Itsasondoko frontoian. Itsasondoa ez ezik, hainbat goierriar ere etorri zen Eustakio Mendizabalen heriotza oroitaratzeko asmoz. Arratsaldean, haurrek ere euren unea izan zuten, ipuin-kontalari bat etorri baitzen Herrialde berdea izeneko ipuina kontatzera. Handik gutxira, txalapatarien ostean, Mikel Mendizabalekin eta Jexux Mari Jauregirekin hasi zen ekitaldia. Bertsolariak duela 40 urteko gertakizun haiek ekarri zituzten gogora: apirilaren hemeretzi hartan / amorrua eta samina / ondorena ere egin zitzaigun / gogorra eta gordina. Euskaltzale eta bertsozale porrokatu genuen Eustakioaren sorlekua izateaz Itsasondo harro dadila ere esan zigun Mikelek. Biolinaren doinu gozoak lagunduta Agurra dantzatu ostean, Egiari zor taldeak askatasunaren aldeko mitilante eta borrokalariak hitz egin eta egungo egoeraren irakurketa egin zuen: gure oroimena lausotu eta kontzientzia galarazi nahi digute; horrexegatik da hain garrantzitsua herri honen duintasuna berreskuratzeko bidea urratzea. Ekitaldiak aurrera egin ahala, hunkidura areagotzen joan zen. Txikiaren ilobek hitza hartu eta euren osabaren lanak eta hitzak ezerezean geratuko ez direlako ziurtasuna eman ziguten, hark bezala, hauek ere bai baitote "kantuari ez utzi, eta ez etsi!".



(lorezaintza gomendioak)

Intsektizida ekologikoak

Intsektizida ekologikoak produktu kimikoak agertu eta garatu baino lehen erabiltzen direnak dira, azken hauek ez baitira hain selektiboak eta era guztietako intsektuak suntsitzen dituzte, ingurunearen oreka eta dibertsitatea hondatuz.

Baratxuria

Intsektu uxagarri bikaina da. Hiru-lau hagin xehatu sartu behar dira bi koilarakada oliotan. 24 orduz jalkitzen utzi eta gero oliotik atera baratxuria. Olio litro bete urari gehitu eta xaboi biodegradarri koilarakada bat gehitu. Nahastura honen bi koilarakada erabili ur litroko, euli zuriak, zorriak eta kakalardo gehienak tratatzeko. Ez eman egun eguzkitsuetan.

Nescafé

5 gr litro bete uretan. Zorrientzako eta beste intsektu batzuentzako eman daiteke.

Xaboi naturala

Lorategiko izurrietatik erabiltzen da, esate baterako, zorriak, koxinilak eta akaroak. Xaboi pasta apur bat egiten da eta litro bat ur gehitu, eta horrekin landareak busti. Xaboiak intsektuen oskola desegiten du, eta hil egiten dira azkenean.

Piper mina

Bi koilarakada piper min, xaboi biodegradarri tanta batzuk eta litro laurden ur nahastu eta jalkitzen utzi gau osoan. Landareen gainean ematen da zuzenean. Euli zuriak eta akaroak uxatzen laguntzen du.

Garagardoa

Tratamendu ona da bareentzat eta barraskiloentzat. Ontzi bat lurpean jarri eta bi hatz garagardo gehitzen zaizkio barruan. Barraskiloak barrura sartzen dira, legami usainak erakarrita, eta hil egiten dira.

Egur errautsa

Landareen inguruan hedatzen bada, barraskiloak eta bareak sartzea saihesten da.

Rotenona

Merkatuan dagoen intsektizida naturala da, baina beste tratamenduek funtzionatzen ez dutenean bakarrik erabiltzen da.

Alkohola

Kotxinilen aurka oso eragingarria da, betiere eraso oso gogorra ez denean. Pintzel batekin jartzen da zuzenean intsektuaren gainean. Batez ere alkohol metilikoa erabiltzen da.

Asentsio-belarra (artemisia absinthium)

Intsektizida honek akaroen, kotxinilen, inurrien, euli zurien, zorrien eta tripsen aurka egiteko balio du. Berau prestatzeko, astebetez beratzen utzi behar da landare lehorra, 5 litro ureko 150 gr-ra. Behin prestatuta, zuzenean ematen da.

Maixel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Onddo eta odolkiak beteriko kaneloiak

4 laguntzako osagaiak

- 16 kaneloi xafla
- Odolki bat
- 250 gr. onddo
- 2 tipula
- 3 azenario
- 2 baratxuri ale
- 2 ardo txuri kopa
- 50 gr irin
- 200 ml oilo-salda

Tipula eta azenarioak eltze batean jarriko ditugu erregosten, bertara odolki gehituko dugu (azala kenduta). Dena elkarrekin erregosia dagoenean, onddoak gehituko dizkiogu. Dena ondo eginda dagoenean, irina eta ardo zuria gehituko dizkiogu.

Ardoa lurrundu dadin itxarongo dugu eta oilo-salda gehituko diogu. Aurretiaz kaneloiak egosita izango ditugu, eta horiek ondo luzatu ondoren, egin dugun nahaskiaz beteko ditugu.

Kaneloiak labeko bandeja batean jarriko ditugu eta bexamelarekin eta gaztarekin estali ondoren labean gratinatuko ditugu. 180º tan 10 minutuz.

Bexamelerako osagaiak: litro erdi esne, 150gr irin, 100gr gurin, gatza eta intxaur muskatua.



Axier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Liburuaren eguneko ekintza arrakastatsuak

Liburu azoka

Apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko eguna aitzaki, Itsasondon ekintza ugari egin genituen. Lehenik eta behin, udaletxeko lehen solairuan liburutegitik kanpo gelditu diren liburuaren azoka egin genuen. Bertan, herritarrek bost liburu hartzeko aukera izan zuten, 3 euroren truke. Herriko zein kanpoko jende ugari gerturatu zen eta batek baino gehiago altxor ugari topatu zituen.

Asteazkenean, truke eguna izan genuen, eta jostailuen truke, herriko haurrek beraientzako moduko liburu ugari eraman zituzten etxera. Giro paregabea izan genuen, ludotekarako jostailu mordoxka bat jaso genituen. Guztien artean bost liburu zozketatu genituen. Horrez gain, tailerra eta eguna amaitzeko ipuin kontaketa saioa egin genituen. Primeran pasatu genuen!

Ostiralean berriz, gaztelekuko nerabeek antolatuta zuten azoka. Eguraldi kaxkarra izan bagenuen ere, jendea animatu zen eta liburu asko saldu ziren. Jasotako dirua udan ekintzak egiteko erabiliko dute nerabeek.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu azokan parte hartu zenuten guztiei, bai trukean, bai antolaketan baita liburuak erosi zenituzten guztiei ere. Irakurri eta gozatu! ■



Zerbitzuak

Txartelak

Liburutegia erabili nahi baduzu, gogoratu txartelak egin behar direla. Oraindik ez baduzu egin, joan udaletxera eta bi egunen buruan jasoko duzu liburutegian ibiltzeko baimena.

Liburuak ekartzeko aukera

Liburutegian ez baduzu topatzen nahi duzun liburua, beste liburutegi batetik ekartzeko aukera dago. Horretarako, udaletxean edota itsasondoko liburutegia@gmail.com helbidean egin deza-kezu eskaera.

Liburuak itzultzeko data

Gogoratu 20 egunen barruan itzuli behar dela liburua.